

MENDIKO LASTERKETEN SARIA

SARIDUNA: NEREA AMILIBIA

Zenbat buru, hainbat aburu esapidea mendi lasterketetara eramanda, zenbat lasterketa, ia hainbeste garaipen esaera aplika dakioke Nerea Amilibiari. Mendi lasterketen nahiz lasterketa bertikalen Euskadiko kopak irabazi zituen iaz, eta baita bi zirkuitu horietatik kanpoko beste hainbat lasterketa ere. Oroitzapen onenetako bi, ordea, garaipenik gabeko probei lotuta ditu Amilibiak: Zegama-Aizkorrin bigarren bukatu zuen, eta Munduko Kopako sailkapen nagusian laugarren. Urtetan lasterketetan parte hartzeko egindako ahalegina saritzeko modua ere bada gaurko aitortza.

ANDRES ESPINOSA SARIA

SARIDUNA: Iñaki Ruiz eta Fernando Rubiori

Jarduera alpinistiko onena saritzen du Andres Espinosa sariak, eta Iñaki Ruizek eta Fernando Rubiok jasoko dute ikurra, iazko udaberrian Alaskako Fairweather mendira (4.671) egindako igoeragatik. Aitortza egiterako orduan «espedizioaren abentura eta esplorazio ukitua» nabarmendu ditu EMFk; Glaciar Bay parkean dago mendia eta 14 espedizioik igo dute —2005. urteaz geroztik inork ez zuen igo—. Fairweather mendiaren izenak *eguraldi oneko* mendi gisan euskaratu daiteke, eta zerikusi gutxi du izenak Alaskako mendietan ohikoak izaten diren baldintzekin. Eguraldiarekin kexa gutxi izan zuten, ordea, Ruizek eta Rubiok, eta haiekin joandako Manuel Martinez eta Jesus Selva espainiarrek. F Maiatzaren 27an abiatu ziren beheko glaziarretik mendian gora, eta 29an jo zuten gailurra; 3.400 metroko desnibela eta, azken zatian, 85°-eko horma tentea gaudituta. Beste bi egun behar izan zituzten behera jaisteko.

ANGEL SOPEÑA SARIA

SARIDUNA: Gorka Karapeto

Harkaitzean eskalatzen nahiz txapelketetan lehiatzen dotore ari da azken urteetan Gorka Karapeto. Berriki kateatu du 9a mailako bere bigarren bidea, *Esclatamasters*, Lleidako Perles eskalada gunean (Herrialde Katalanak). Iazko eskalada eta garaipen uztari bainoago, Karapetok azken urteetan izandako ibilbideari aitortza egiteko modua izango da Angel Sopeña saria, eta azken sei urteetan Euskadiko kirol eskalada txapelketa lau aldiz irabazi izana hartu du aintzat EMFk azpeitiarrari saria ematerakoan.

ANTXON BANDRES SARIA

SARIDUNA: Juanma Sotillos

Euskal Herrian dauden irrati, telebista, egunkari eta bestelako komunikabideak aintzat hartuta, mendiko berriak lantzen urte gehien daraman kazetaria da Juanma Sotillos. *Diario Vasco* egunkarian 32 urte darama mendiko informazioa lantzen, eta ibilbide horretan «informazioa kontrastatzeko eta eraikitzeko» egindako lana sarituko diote.

IBILBIDEARI SARIA

SARIDUNA: Gloria Suarez Ruiz de Erentxun

Arabako Mendizale Federazioak hauspotuta jasoko du Gloria Suarez Ruiz de Erentxunek ibilbideari emandako saria. Gasteizko San Ignacio elkartean 45 urtetik gora egin ditu irteerak antolatzen eta elkarteari lotutako bestelako ekintzetan laguntzen, eta Arabako federazioarekin ere harreman estua izan du. Gainean eraman ohi duen gozoki zorroagatik ezagutzen dute askok, eta *Gloria Ama* ezizenarekin beste askok. Aitortza egingo dio EMFk.

ANDRES DE REGIL SARIA

SARIDUNA: Gasteiz Mendi Elkartea

Mendiko eskiaari lotutako saria da Andres de Regil, eta aurtengoa ez du pertsona batek jasoko, Gasteiz mendi elkarteak baizik. Mendiko eskiko zeharkaldia antolatzen urtetan egindako lana eskertuko diete. Martxoaren 12 eta 13an izango da, hain zuzen, aurtengoa, zeharkaldiaren 26. ekitaldia, eta Astun eta Ossau inguruetan prestatu dute. Urte berezia da 2011. Gasteiz mendi elkartearentzat: 40 urte bete ditu. Gasteiz mendi taldearen osasun onaren adierazgarri dira elkarteak dituen 4.000 bazkideak eta ia 2.000 federatuak.

LOLI LOPEZ GOÑI SARIA

SARIDUNA: Edurne Pasaban

Sari, omenaldi eta aitortzak jaso eta jaso ari da Edurne Pasaban azken hilabeteetan. 2010. urteak utzitako irudietako bat izan zen Pasaban Shisha Pangmako tontorrera igo eta 14 zortzimilakoen bidean azken urrats egin zueneko. Instituzio, elkarte, komunikabide eta bestelakoen sarien ostean, EMFk aitortza egingo dio gaur.

ADISKIDETASUNAREN SARIA

SARIDUNA: Broker's aseguru etxea

Euskal Mendizale Federazioaren bidez federatzen diren mendizaleek Broker's etxearen babesa izan dute azken 23 urteetan. Babes hori aitortuko diote gaur.

Kolaborazioaren saria

SARIDUNA: Roca Cordes Muntanya S. L.

Komunikabide baten biziraupenean publizitateak duen garrantzia ukazina da, eta *Pyrenaica* aldizkarian 30 urtez jarri ditu iragarkiak Roca Cordes Muntanya enpresak. Mendirako eta eskaladarako sokak ekoizten espezializatu dira azken urteetan, eta haiek ekoiztitakoak izan ziren, besteak beste, Martin Zabaleta Everestera igo zeneko sokak.

SHEVE PEÑA SARIA ELGETAKO EKITALDIAN AUKERATUKO DUTE

Urtero banatu ohi du EMFk iraupen luzeko ibilaldiei dagokion Sheve Peña saria, baina iazkoaren bidetik aurten ere Elgetan egingo duten ekitaldian aukeratuko dute saritua, martxoaren 13an. Bertara joaten diren ibiltariek aukeratuko dute 2010. urteari dagokion ibiltari saritua. Finalista festa mendi ibilaldi batekin hasiko dute, 07:15ean. Goiz buelta izango da eta Udalaitz mendia igoko dute. Bazkaritarako aukera izango da ondoren, Elgetako Espaloia antzokian, eta bazkalondoan aukeratuko dute Sheve Peña saria. Argibideak: www.emf-fvm.com.